

**Edurne
Gonzalez
Elorza**

Legazpiko
alkategaia

Candidato
a la alcaldía de
Legazpi

ehbildu

**Maitte
duzun
Legazpi**

EGINGO DUGU.

Maite duzun Legazpi

Etengabe herritarrekin eraikiko dugun herria



**EGINGO
DUGU.**

ehbildu

*Crearemos espacios
de colaboración con la
ciudadanía y agentes
sociales, tejiendo y
reforzando redes, para crear
un gobierno compartido.*

Gure helburu nagusia herritar guztien ongizatea bilatzea da. Komunitateak eratu behar ditugu, denontzako bizitza duinak bermatzeko, herri bizitza sustatuko duen herri kohesioa sortzeko eta ingurune bizigarri bat eraikitzeko. Guk inork baino hobeto dakigu nola eraiki hurbilekoa eta nola eraldatu kolektibotik.

Elkar zainduko duen herria izateko baliabideak eta tresnak jarriko ditugu herritarren eskura; bizigarriak diren auzoak bultzatuko ditugu, bai irisgarritasun bai ekipamendu aldetik; herri osasuntsua eta mugitzen dena sustatuko dugu, naturarekin harremana duena eta etorri berriei harrera egingo diena. Bizi eta gozatzen dugun herri bat.

Gauzak beste modu batera egiten ditugulako, herritar eta eragileekin lankidetzan jarduteko espazioak sortuko ditugu, horiekin sareak eraiki edo indartuz. Baldintzak sortuko ditugu herritarren proposamenei, ekimenei eta ekarpenei bidea emateko: ezberdinekin lan egin, herritar guztiekin lan egin, eta batzen gaituzten elementuak bilatu. Azken finean, boterea herritarrekin

partekatu, eta haien bizitzak etengabe elkarrekin hobetzeko proiektuak landu nahi ditugu.

EH Bilduk gizarte gero eta feministago bat eraikitzeko lanean jardungo du. Politika feministak udaleko arlo guztietara eramango ditugu eta mugimendu feministarekin lankidetzan sakonduko dugu, eraso matxistarik gabeko herri baten aldeko lanketa integrala egiteko. Zaintzen sektorean, erabat feminizatutako sektorea, lan baldintza duinak bermatzeko lan egingo dugu.

Euskara berriz ere udaleko lan hizkuntza izango da, eta euskara herriko hizkuntza nagusia izateko sustapen lanak egingo ditugu. Era berean, euskara ardatz izango duen egitasmo komunikatibo multimedia bat bultzatuko dugu eskualdean, Goierriko beste proiektuekin elkarlanean, sinergiak aprobetxatuz eta baliabideak optimizatuz. Euskaratik eta euskaraz lan egingo duen proiektu komunikatibo bat.



Gure taldea

Nuestro equipo



- 1 Edurne Gonzalez Elorza
- 2 Ibon Alcelay Ugarte
- 3 Maria Sarasola Azarola
- 4 Jon Jauregi Zabaleta
- 5 Igor Romaratezabala Ortiz
- 6 Eneko Iriondo Eguren
- 7 Zaida Casales Velasco
- 8 Nekane Iñurritegi Leon
- 9 Jesus Martinez Sanchez-Dehesa
- 10 Malen Urbegain Garate
- 11 Patxi Caballero Hurtado
- 12 Asun Ugarte Sagastizabal
- 13 Eli Insausti Iriondo
- 14 Eñaut Auzmendi Iturbe
- 15 Itxaso Olabide Otaegi
- 16 Esti Karrera Lazkano

Lau urteotan udala ongi ezagutu duen taldea aurkezten dugu, herriaren eta herriarren beharren inguruko ikuspegi zehatza landu duena. Legazpik dituen erronkei aurre egiteko talde prestatua, konprometitu eta profesionala. Taldea da gure ardatz nagusia. Bakarrik azkar mugi gintezke; taldean, ordea, urrutirago iritsiko gara.

Presentamos un equipo que a lo largo de estos cuatro años ha conocido bien el Ayuntamiento y que ha trabajado una visión concreta de las necesidades de Legazpi y de la ciudadanía. Un equipo preparado, comprometido y profesional para afrontar los retos a los que se enfrenta Legazpi. El equipo es nuestro eje central. Si caminas solo, irás más rápido; si caminas acompañado, llegarás más lejos.

Elkar zaintzen duen herria

BA AL DAKIGU NOLA ZAINDU NAHI DUGUN, NOLA ZAINDUAK IZAN NAHI DUGUN, ETA HORRETARAKO ZEIN BALIABIDE BEHAR DITUGUN? HAUSNARKETA BULTZATUKO DUGU, GALDERA HORIEI MODU KOLEKTIBOAN ERANTZUTEKO. GAUR EGUN, EREMU PRIBATURA MUGATZEN DA ZAINZA EREDUA, ETA HORI ERALDATZEKO ASMOZ, PARTE-HARTZE PROZESU BAT ABIARAZIKO DUGU.

LEGAZPI HERRI ZAINZAILEA IZATEA

Oinarrian pertsona ardatz duen arreta eredia sustatuko dugu, horren bueltan eraiki beharreko zaintza ekosistema definitu, eta udaletxeko antolaketan behar diren aldaketak egin. Zaintza pertsonaren nahi eta desioetan oinarritu behar da, eta lotura afektibotik zaintzen dutenen zaintza bermatu behar du; horregatik, zaintzaile profesionalen lan baldintza duinak bermatu behar ditugu. Zaintzaren mahaia sortuko dugu herritarrekin, gaian adituak direnekin, zaintzako profesionalekin eta erabiltzaileekin, zaintza ereduaren inguruko hausnarketa egiteko.

Proiektu garrantzitsu bat dugu eskuartean Legazpin, Ezkurrenea. Belaunaldien arteko zein izaera komunitarioko espazio bat izan behar du. Espazio honen definizioa herritar eta eragileekin batera egingo dugu.

UN PUEBLO QUE CUIDA UNOS DE OTROS

Promoveremos un modelo de atención centrada en las personas, definiremos el ecosistema de cuidados a construir a la vuelta del mismo y realizaremos los cambios necesarios en la organización del Ayuntamiento. Los cuidados deben basarse en los deseos de las personas, garantizar el cuidado de quienes los cuidan desde el vínculo afectivo y garantizar unas condiciones de trabajo dignas de las cuidadoras profesionales.

Tenemos entre manos un importante proyecto en Legazpi, Ezkurrenea. Debe ser un espacio intergeneracional y de carácter comunitario. La definición de este espacio la realizaremos conjuntamente con la ciudadanía y los agentes sociales.



ZAINZA SARE PUBLIKO KOMUNITARIOA ERAIKITZEA

Hautatu gabeko bakardadeari aurre egiteko estrategia orokor eta komunitario baten diseinua landu behar dugu, batez ere, egoerak larriagotu aurretik detekzio goiztiarra egin ahal izateko. Horretarako, sare publiko komunitarioa eraiki nahi dugu, herriarren arteko auzo zaintza sustatzeko.

CONSTRUIR UNA RED DE CUIDADOS PÚBLICA COMUNITARIA

Vamos a trabajar en el diseño de una estrategia global y comunitaria para hacer frente a la soledad no deseada, sobre todo, para poder realizar una detección precoz antes que se agraven las situaciones. Para ello, queremos construir una red pública comunitaria que fomente el cuidado entre las y los legazpiaras.

Iniciaremos un proceso

participativo para transformar

el modelo de cuidados, y definir

el ecosistema de cuidados de

Legazpi.

Herritarren bizitzak hobetzeko sei proiektu



Bizigarriak diren auzoak

Irisgarritasun planaren garapenarekin jarraitu: Bikuña, Itxaropen, Arantzazu, Hegialde eta Aizkorri kaleei dagozkien interbentzio integralak egin, eta gainerakoetan sortzen diren beharrei erantzun. Era berean, auzotarrentzako topalekuak sustatu, zerbitzuak auzoetara eraman ahal izateko: denda txikiak edo ludoteka esaterako. Berdeguneak zabaldu eta espazio publiko atseginagoak sortu, herriko ondarea balioan jarriz: Lartxartegiko parkearen birmoldaketa, Olaberriko burdinola eta Mirandaola edo Urtatza zaharreko aisialdi guneak.



Mugitzen den herria

Herritar bakoitzaren gaitasun eta zailtasunetara egokitutako bizi ohitura aktibo eta osasuntsuak sustatzeko zerbitzua martxan jarriko dugu. Jarduera fisikoaren gaineko plan estrategikoa egin, kirol ekipamenduen berrikuspena, azterketa eta egokitzapena egiteko. Bidegorri sarea handitu eta sustatuko dugu. Eskola kirolari buruzko hausnarketa sustatuko dugu, guraso, ikasle, ikastetxe eta hornitzaileekin batera. Osasunaren mahaia sortuko dugu, Osakidetza, hezkuntza, kirol elkarte eta herritarrekin elkarlana bultzatzeko.



Naturarekin harremana duen herria

Landa eremuari dagokion plan propioa egingo dugu. Hori babesteaz gainera, lehen sektorearen garapena bermatu nahi badugu eta elikadura subiranotasunean aurrera egin, ezinbestekoa zaigu lehen sektoreko ustiaketa ahalbidetzea, ezagutaraztea eta merkaturatzeko bideak zabaltzea.



Gozatzen dugun herria

Jai eredu berri baten lanketa. Nerabeen aisialdi ereduaren eta ekipamendu beharren inguruko hausnarketa. Kultur espazio zabal bat sortu: taldeen plaza, elkarlana eta aisia lantzen dituen; euskararen gune, sortzaile berrientzako lantoki eta erakusleihu izango dena.



Harrera herria

Pertsona eta familia etorri berrientzat harrera plana diseinatu eta herriko eragileekin elkarlanean harrera bulegoa sortuko dugu, Legazpira datozen pertsonen herrian txertatzeko bideak errazteko. Aniztasun mahaia ere sortuko dugu.



Erakartzen duen herria

Turismoa jarduera ekonomiko gisa sustatuko dugu, ditugun baliabideen kudeaketa on bat eginez. Turismo eredu iraunkor eta aktibo baten alde egingo dugu, Brinkola Aizkorri Aratz parkerako sarrera gisa sustatuz. Legazpitik abiatzen diren mendi ibilaldiak eta BTT ibilaldiak sortuko ditugu.

Bakarrik azkarrago; elkarrekin urrutiago

GARRANTZITSUA DA HERRIEN ARTEKO ELKARLANA, URRETXU ETA ZUMARRAGAREKIN, BAITA GOIERRIKO GAINONTZEKO HERRIEKIN ERE. BADITUGU DAGOENEKO PARTEKATZEN DITUGUN ZERBITZUAK ETA HORIETAN SAKONTZEN JARRAITU BEHAR DUGU ETA BESTE HAINBAT ALORRI HELDU ETA GARAPEN AGENTZIARI BEHAR DUEN BULTZADA POLITIKOA EMAN.

UGGASArekin batera Gipuzkoan sustraitutako enpresa industrial aurreratuak eta traktoreak erakartzeko ahalegina egingo dugu, ekosistema industrial aurreratuak eta traktoreak erakartzeko. Arlo sozio-sanitarioari ere behar duen bultzada emango diogu, UGLE, UGGASA eta beste eragile batzuekin elkarlanean eskualdea arlo soziosanitarioan garatzeko estrategia diseinatzuz.

Eskualdeko Berdintasun Mahaia indartzen eta sendotzen jarraituko dugu eta honekin eskualdeko III. Berdintasun planean jasota dauden egitasmoak eta bereziki aurrean dugun erronka nagusienetakoa izango den zaintzaren inguruko proiektuak bultzatuko ditugu. Era berean, III. Berdintasun planaren hedapena udalean egingo dugu, genero ikuspegia udaleko arlo guztietara eramateko.



*Profundizaremos en
la colaboración entre
pueblos, tanto con Urretxu
y Zumarraga, como con
el resto de pueblos del
Goierrri.*

Bizitzen dugun herria

Sidenor, Arcelor, Kaminpe eta Irimo eremuen beraktibazioaz azpiegitura industrial iraunkorrak sortuko ditugu. Horrela, kalitatezko behar beste azpiegitura izateko eta oinarri teknologikoa duten enpresa ekimenak ezartzeko, eta kalitatezko lanpostuak sortzeko. Era berean, eskualdeko enpresen I+Gko finantziazioa handitzeko bulego eta aholkularitza tekniko espezifikoak sortuko dugu.



Bestetik, tokiko merkataritzarako plataforma digitala eta UG KOOP ekimena bultzatzatuko ditugu. Ekoizle, merkataria eta ostalariei bideratutako online platafoma bat martxan jarriko dugu. Ekonomia soziala eta kooperatibismoa eskualdean bultzatzeko UG KOOP ekimenari jarraipena emango diogu.



Komunitate energetikoen sorkuntza eta hedapena

Energia eredu iraunkor eta burujabe baterako bidean aurrerapausoak eman behar ditugu eta beste eredu energetiko bat sustatu behar dugu, herritar, enpresa eta komunitatearekin elkarlanean. Autokontsumoa oinarri duten ereduak sustatzea lagunduko dugu eta eskualdean komunitate energetikoak sortuko ditugu. Komunitate energetikoak komunitatea indartzeko eta trantsizioa energetikoan inplikatzen subjektu aktiboa izango da eskualdean. Baita ere, energia demokratizatzeko eta herritarrak beren energiaren erabakitzaile eta arduradun egiteko.

Maite duzun Gipuzkoa

EGINGO DUGU.



Maddalen
Iriarte
Okiñena

Gipuzkoako
Ahaldun Nagusirako
hautagaia

Candidata a
Diputada General
de Gipuzkoa

*Aprovechemos todas
las posibilidades que
tiene Gipuzkoa, para
que nadie se quede
atrás.*

Erronka handiak ditu Gipuzkoak, trantsizio ekologiko zein teknologikoan jauzi bat emateko ordua da. Industriari bultzada berria emango diogu, kalitatezko enpleguaren ikur dena. Doakotasuneranzko trantsizioa egingo duen zaintza sistema osatuko dugu, inor atzean utziko ez duena eta zaindua izateko eskubidea bermatuko duena. Garraio publikoa indartzeko konpromisoa ere badugu.

Mejorar para avanzar

ehbildu

🐦 @MaddalenIriarte

📘 Maddalen Iriarte Okiñena

📷 maddaleniriarteokinena

🌐 ehbildu.eus